



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko martxoaren 11ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko martxoaren hamaikan arratseko zazpiak eta erdietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IRIART Jean Claude, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri
Saioko idazkaria: IDIART Claudine

Deialdiaren data: 2025eko martxoaren 7a
Afixatze data: 2025eko martxoaren 7a

10. ERABAKIA: HILOBI KONTZESIO BAT HERRIARI ITZULTZEA

(9.1 nomēklatura)

Auzapezak adierazi du 2024ko martxoaren 15eko egintza bidez Michel DURAND jaunak herriko hilerrian 30 urteko hilobi kontzesio bat eskuratu zuela 3 110 €ren truke, honela banaturik: 60 € kontzesioarentzat eta 3050 € hilobiarentzat. Kontzesioan nehor ez dago hilobiraturik. DURAND jaunak kontzesioa herriari itzuli nahi lioke.

Auzapezak Herriko Kontseiluari galdegin dio proposamen horren inguruko erabaki baten hartzea.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

ONARTU DU DURAND jaunak eskuratu zuen kontzesioa herriak berriz hartzea.

HONELA FINKATU DU kontzesioaren itzultze prezioa: 60 € kontzesioarentzat eta 3050 € hilobiarentzat, hots orotara 3 110 €.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari itzulketa egintzaren egiteko.

Jardunean diren kideak: 15
Presente direnak: 14
Adierazi diren bozkak: 14
ALDE: 14
KONTRA: 0
ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko martxoaren 21a

Auzapeza:

Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko martxoaren 24an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.